

ITALIA

Alderdi Komunistarik gabe ez dago gobernatzerik

Martxoaren 18tik 23ra ukan du Italiako Alderdi Komunistak bere Kongresu Nagusia. «Compromesso Storico»: bi hitz hauen bidez adierazten da Alderdi Komunistak azken aldian hautatu duen politik joera, eta Kongresuaren gaia ere horixe izan da. Alderdi Komunistak, Italian agintaritzara heltzeko ordua iritsi* zaiola uste du. Baina ez harmadaz* baliatuz, Portugalen bezala; ez matxinada* bidez. Kristau Demokrasiarekin akordio («compromesso») batetara iritsiz sartu nahi du Alderdi Komunistak Gobernura.

1947.etik honantz Alderdi Komunita oposizioan egon da, eta hortik egin du bere politika. Gaurregun, Italiaren egoera konpontzeko, eta Kristau Demokrasiaren ezina ikusiz, agintaritza eskatzen du Gobernuan. Joan den urteko dibortzioari buruzko erreferendum hartaz gerotik, goitik behera dator Kristau Demokrasiaren indarra, hogei ta bost urte luzetan Italiako agintaritza eraman ondoren. Datorren ekainean* izango dira eskualdeetako* aministrarien* hauteskundeak.* Hemezortzi urtez gorako guztiek ukanen dute lehen aldiz hautatzeko eskubidea. Honegatik eta bere izarra itzaliz* doakiolako, Kristau Demokrazia beldur da, hauteskunde horietan galera handia ukanen duela. Kristau Demokrazia eta honek antolatu dituen gobernu eta agintaritza moduak higatuak* daude. Bide berriak behar ditu Italiak. Bide berri hau eskaini nahi dio Alderdi Komunistak.

Aipatu* Kongresua egiten zèn bitartean gertatu dira Portugaleko erabaki larriak: hango Kristau Demokrasiak ez du apirileko hauteskundeetan eskuhartzerik ukanen. Italiako Kristau Demokrazia honetaz baliatu da, Alderdi Komunistaren «compromesso storico» delakoaren politika hankaz gora bota nahian. Fanfanik, Kristau Demokrasiaren sekretariak,* aspalditik ukatua du behin eta berriro, komunistekin gobernatzeko akordiorik egin litekeenik. Hala ere, Kristau Demokrasiako guztiak ez datoz horretan bat beren sekretariarekin. Fanfanik, komunisten Kongresura bidaliak zituèn ordezkariak* atera egin ditu, Portugalen gertatutakoaren kontrako protesta bezala.

Hau guztiau honela dagoelarik, komunisten Kongresuak ez du uste, berehalakoan «compromesso storico» horretara heltzerik dagoenik; baina ez du politika hori alde batera uzten. Kristau Demokrasiaren bertan horren alde dauden indarrak ikusiz, ez du alderdi hori bere osan kritikatu, baina bai zorrotz Fanfani sekretaria. Beraz, akordioaren politika aurrera eramateko, lehenik Fanfani bota behar da eta berorren hegemoni zaletasuna.

Kristau Demokrasiatik aparte, Italiako beste partiduek ere ba dute beren zalantzarik, komunistak Gobernuan oihartzeko orduan. Alderdi Komunistak duen nazioarteko politikaren beldur dira batez ere. Baina azken urteotan Alderdi Komunita biziki saiatu da, bere demokrasi aurrerapena ezezik,* Errusiarekiko bere askatasuna ere agertzen, eta beste Alderdi Komunisten zenbait jokabide salatzen eta kritikatzeko. Honela, azken Kongresuan bertan kondanatu du Portugaleko Kristau Demokrasiaren debekatzea.

Datorren ekaineko hauteskundeei begira daude orain Italiako alderdi guztiak eta bai Gobernua bera ere, ho-

nen iraupena orduan ikusiko baita. Kristau Demokrasiak ukanen duen beheraldiaz, gaizkoatu* egingo da alderdi barneko krisia; eta, segurenik, Fanfanik utzi egin beharko du sekretaritza. Alderdi Komunistak erabaki du bere politika azken Kongresuan, eta hortik joko du ekaineko hauteskundeetan ere. Kristau Demokrasiaren gaitzapenez eta Fanfaniren erortzeaz* baliatu nahi du, bere politika aurrerara eramateko eta Gobernuan berriz ere eskuhartzeko. (Patxi Kortabarria)

MEDEBAL EUROPA

Demokrazia sozialismoan

Atzo bezala gaur, harreman bereziak ditu komunistak beti Moskurekin. Urliak* zioenez, bihotza bakarrik ez baina amasabela* ere han du benetako komunistak. Sobietar Batasuna da komunismoaren aberria: hori denok dakigu.



Santiago Carrillo
Aliantza eta Paktua

Baina hauzia ez dago horretan. Baizik eta komunistak batek Moskurekin duen lotura, zernolako den jakitean. Eten ezina ahal da zilbor heste hori? Edo, galdea beste modu batera eginez, komunismo bakarraren aberri bakarra Mosku dea*?

Horraxeino, zilbor hestea eten erazteraino eraman nahi izan dute batzuk desestalinizazioa. Hau da, demokratizazioa Sobietar Batasunean, demokratizazioa Alderdiaren barnean, baina demokratizazioa, halaber,* mugimendu komunistan. Honela, Moskuren buruzagitza sakratua hauzitan jartzen da. Polizentrismoa sortuko da. Nazio bakoitzaren arazok lehentasuna hartzen dute, Alderdiarentzat ere. «Sobietar Batasunarentzat ona dena, komunismoarentzat ere ona da»: hori ez da hain klar ikusten aurrerantzean. Txekoslovakiako udaberria ez da bereziki sozialismoaren primadera izan.